

PASAIKO LA ARMONIA ELKARTEAK ANTOLATUTA, HAURRENTZAKO XAKE TXAPELKETA.

2006.go uztailaren 9an, La Armonia Elkarteak antolatutako Xake Txapelketa jolastu zen Pasaian. Infantil mailako ohiko Patata Tortilla Lehiaketa egin zen goizean eta arratsaldean xake partidak.

39 parte hartzaile izan ziren, 3 mailatan banatuta: 10 urtez gorako mailan, 24 haur izan ziren; 10 urtez azpiko mailan, 12 haur; 5 urtez azpiko mailan, 3 haur.

Loritz Lizarbek irabazi zuen alebinetan, **Mikel Pérezek** benjaminetan eta **Unai Zabaletak** 5 urtez azpiko mailan.

Sarien banaketan, Iñigo Galarza antxotarraren omenez jolastutako Helduen Xake Txapelketari zegokion saria ere eman zen. **Eugenio Sagarberriak** eskuratu zuen hori.

2006-07-09.

Iturria: Gipuzkoako Xake Federazioa.